



# IKASTETXEKO HEZKUNTZA PROIEKTUA

*SAN INAZIO LHI  
K/ Kantabria, 2  
BILBO- 48015  
Tel:94 4758364*

<b>Aurkibidea</b>	<b>3</b>
<b>1. Zentroa eta bere inguruaren analisia</b>	<b>3</b>
<b>2. Eskolaren nortasun oinarria</b>	<b>5</b>
<b>3. Helburu orokorrak</b>	<b>6</b>
3.1. Pedagogikoak	
3.2. Antolaketakoak	
3.3. Institucionalak	
<b>4. Eskola eskaintza eta ildo pedagogikoa</b>	<b>7</b>
4.1. Eskola eskaintz	
4.2. Ildo pedagogikoa	
<b>5. Funtzionamendu eta antolaketa eredia</b>	<b>9</b>
<b>6. IHP egokitzapen eta ebaluazioa</b>	<b>10</b>

## **SARRERA**

Proiektu hau Bilboko San Inazio LHI hezkuntza-komunitateak sortutako proiektu bat da, hezkuntza-komunitateari zuzenduta, hausnarketa eta adostasun prozesu baten ondoren, indarrean dagoen legean oinarriturik eta gure errealitate eta ingurunea kontutan izanik.

IHP honen helburua gure nortasuna eta zentroaren ezaugarriak markatzen dituen planteamendu orokor eta berariazkoak konbinatuz, adierazpen multzo koherente bat plasmatea da, gure hezkuntza prozesua zuzentzeko asmoz. Dokumentu bizi eta eraginkor bat izatea nahi dugu, gizarteak eskatzen digun eguneroko hobekuntza eta helburuak lortzeko.

### **1.Zentroa eta bere inguruaren analisia**

San Inazio HLHI, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren menpe dagoen erakunde publikoa da, D ereduko Haur Hezkuntza (2-6 urte) eta Lehen hezkuntzako (6-12 urte).

Ikastetxea Bilboko San Inazio auzoan, eremu lau batean, itsasadarraren ondoan eta Bilboko erdigunetik kilometro gutxira, kokatuta dago. Biztanle askoko, 14.000 inguru, auzo dinamikoa bat da. Familien maila sozioekonomikoa erdiko da. Auzoko etorkin biztanleria ez da altua, % 8a hain zuzen ere.

Urbanizatua dagoen egoitza-eremu batean kokatuta dago, etxebizitzaren eta zerbitzuen sektorean: dendak, tabernak, banketxeak... Kultura eta kirol zerbitzu garrantzitsuak ditu: Udal liburutegia, Zaharrentzako egoitza, Osasun zentroa, Kiroldegia, Kirol taldeak (beisbola, futbola, futbol sala... ). Hezkuntza-eskaintza askotarikoa eta anitza da: Ikastetxe publikoak, Itunpeko ikastetxeak, Institutuak, Lanbide heziketako zentroa, Musika Kontserbatorioa, Sarriko Unibertsitatea, Haurreskola... Honek eta San Inazio auzoak dituen plazak, lorategiak, umeak jolasteko lekuak, parkeak eta kale zabalek auzo aktibo eta bizia bilakatzen dute. Beste aldetik oso ondo dago komunikaturik hiriko erdigunearekin, garraio publikoaren bidez: metro, autobusa... Hori dena, bizitzeko auzo atsegina bat egiten du non eraikin berriak eta etxebizitza-eskari handia izaten den.

Eskola 1974an eraiki zen, “Villar Palasi” eskola berriak sortzeko planarekin, Juan De Urrutia ingeniari izenarekin. Auzoan, bere adreiluzko fatxadaren koloreagatik “escuelas rojas” izenarekin ezagutzen da, San Francisco Javier “escuelas blancas”etik desberdinduz.

Gure eskola 1990an, aldamenean 1966an eraikitako “Eskola zuriak” delakoarekin elkartu zen, eskola bakarra bilakatuz, San Francisco Javier-San Ignazio izenarekin. Hasiera batean eraikin biak, “zuriak” eta “gorriak” eskolakoak izan ziren. Denboraren poderioz, eta jaiotza tasaren jaitsiera batera, 2002az geroztik eraikin gorriarekin bakarrik geratu gara. Beste eraikina Hezkuntza Sailak zerbitzu ezberdinetarako erabiltzen du: Berritzegune, ISEI\_IVEI;EPA...

Eskola, 60-70 hamarkadan, gure inguruan industrializazio eta emigrazioa izandako jaiotze igoeraren ondorioz sortu zenetik auzo eskola izan da eta horrela mantendu da .

Azken urteotan ikasle kopurua 290-300 inguru izan da, 18 talde Haur eta Lehen Hezkuntzan banaturik. Bi lerroko ikastetxe bat da, nahiz noizbait mailaren batean talde bat galdu . Halaber, Gelan Egonkor bat dugu berariazko hezkuntza premia duten 5 ikasleentzako lekuarekin.

Lehen Hezkuntza amaitzerakoan, eskolako mapan markatutako gure ikasleen hezkuntza osatzeko ibilbidea, BHI San Inazio da .

Ikastetxeko lantaldea 36 irakaslek osatzen dute, tutore eta irakasle espezifikoak barne. Haietatik, % 75 gutxi gorabehera, egonkortasuna eta esperientzia handiko behin betiko irakasleak dira. Ez-irakasle taldea irakaskuntza-laguntza espezialista, hiru sukaldari, bi atezain, garbitzaile eta eskolaz kanpoko monitoreaz osatuta dago.

Gure ikasleen maila sozioekonomiko eta kulturala erdi- baxua da. Bekadunen kopurua % 74a da eta familia etorkinen kopurutik ,% 40, asko, % 18a hain zuzen ere, hemen jaiotze gure ikasleak diren seme-alabak. Kultura anitzeko ikasleak ditugu baina eskola eta ingurumenean ondo egokituta. Nahiz eta hizkuntza eredia D izan, familia gehienek ez dakite euskara. Ikasgeletarako eta beharrezkoak diren hezkuntza jardueretako beste zerbitzu batzuetarako espazio zabala dugu: liburutegia, informatika gela, ikus-entzunezko gela, patioak, gimnasioa, jantokia ...

Gure ikastetxean jantokia da harro sentiarazten digun zerbitzu oso garrantzitsu bat. Sukaldea eskola barruan izateak, kalitate handiko zerbitzua eragiten du eta ondorioz ikasleen %86ek erabiltzen dute. Ez daukagu garraiorik, ikasle gehienak auzokoak direnez, eskolara oinez etortzen baitira.

Eskolaz kanpoko ekintzak ugariak izanda, ikasle kopuru handiak parte hartzen du. Alde batetik, AMPAk antolatutako jarduerak daude: Jolas ikasgela, haurtzaindegia, tailerrak, ingelesa ... Beste aldetik, ACEX programa barruan, ikastetxeak: multikirola eta liburutegia. Multikirol irakasleak , eskola kirola eta saskibaloia ere kudeatzen ditu. Eskola-komunitateak, ikastetxe lasaia, lan giro atsegina, funtzionamendu eta elkarbizitza ona, hezkuntza profesionalen inplikazio handia eta familiarentzat asebetetze maila altuarekin, ebaluatzen du.

## **2. Eskolaren nortasun oinarriak.**

- a) Balore etiko eta demokratikoetan oinarritutako eskola gara, eta aniztasun ideologikoaren aldekoa.  
Gaur egungo gizarte anitzean agerian egon behar diren errespetu, elkarlaguntza, tolerantzia, askatasuna baloreak laguntzen eta sustatzen dihardugu.  
Ez dugu inor baztertuko bere jatorri, arraza, sexu, erlijio, ideia eta maila sozioekonomikoagatik. Aniztasun horrek gure elkarbizitza aberasten du.
- b) Euskara eta euskal kultura bultzatzen dituen eskola. Ikasle guztiek Euskal Autonomi Erkidegoan dauden bi hizkuntza ofizialak ikasteko eskubidea dute, beraz, eskolako helburu bat ikasle elebidunak lortzea da, normalizazioa eta hizkuntzen erabilera bultzatuz.
- c) Gatazkak konpontzeko bide baketsuan, prebentzioan eta elkarren arteko komunikazioan oinarrituta dagoen elkarbizitza sustatzen duen eskola.  
Arazoak eta gatazkak erabiliko ditugu pertsona moduan hazteko, besteekin hobeto bizitzeko eta gure emozioak kudeatzeko.  
Guzti horrekin eskola giro baketsu bat sortuko dugu eskolan, ikasleria lasai eta babestuta sentitzeko.
- d) Inklusibitatean eta berdintasunean oinarritutako eskola. Detekzio eta arreta goiztiarraren zerbitzura jarriko ditugu errekurtsioak eta ahaleginak, ikasle bakoitzari erantzun egokia emateko nahian, ikasle guztien garapena eta eskola arrakasta bermatzeko.
- e) Hezkuntza integrala. Hezkuntza komunitateak ikaslearen garapen osoa, hau da, giza, emozio, psikologi eta pertsonal identitatea, bultzatuko du. Eskola ezagutzaren igoerlea ez ezik, garapen osoaren eremu guztietako baloreen eredu bere bada.
- f) Eskola gardena, ondo antolatuta eta maisu-maistra, guraso eta eskolaz kanpoko langile, hau da, talde guztien partaidetza eta elkarlanean oinarrituta.

### **3. Helburu Orokorrak**

#### **3.1 Pedagogikoak**

- Ikasle bakoitzaren errealitatea kontutan izanik eta inklusibitate printzipioan oinarrituta, oinarrizko gaitasunen erdiespena bultzatu.
- Ikasleei gatazka eta arazoak konpontzeko eta emozioak kudeatzeko estrategia desberdinak luzatu, ikaslearen ongizatea bermatzeko.
- Ikasleari bere garapenerako behar dituen esperientzia anitzak eskaini, autonomia, autoestimua, besteekiko harremanetan eta eskola eta bizitzan partaide aktiboa izateko.
- Euskal Herriko kultura, historia eta hizkuntzaren parte izatearen identitatea deskubritzen lagundu, hizkuntza ofizialetako ezagutza bermatuz eta euskararen normalizazioa ahalbideratuz .
- Ingurumenarekiko errespetua sustatu.
- Ikasleengan ikasketa eta lan ohiturak suspertu, ikusmina eta ikasteko nahia piztu, bere hezkuntza prozesuaren protagonista bihurtuz.
- Lan kooperatiboa eta berdinen arteko elkarrekintza bultzatu.
- Higiene ohitura eta bizi era osasuntsuak suspertu.
- IKT en erabilpena areagotu eta irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan eta parte hartze prozesuan bide izan daitezen bultzatu.
- Eskolak dituen material eta giza errekursoak era egokian kudeatu.
- Familiak euren seme-alaben ikaskuntza prozesuan inplikatu, beraiekin sistematikoki elkartuz, denon arteko kolaborazio giroa sor dadin .
- Irakasleen formazioa eta berrikuntza pedagogikoa bultzatu.

Helburu hauen zehaztapena ICP -Ikastetxeko Curriculum Proiektua-, Elkarbizitza Proiektua, Tutoretza Plana eta Hobekuntza Planak biltzen dute.

#### **3.2 Antolaketakoak**

- Hezkuntza komunitateko partaide guztien arteko lan harremanak eta giro atsegina bultzatu.
- Eskolako funtzionamenduan denon arteko partaidetza sustatu, elkarrizketak ahalbideratuz, erabakiak adostasunez hartu ahal izateko.
- Guztion onerako hezkuntza komunitateko norik bere erantzukizuna hartu, bai pertsona zein talde moduan.
- Agerikotasunez eta egonkortasunez kudeatu zentroa, eremu guztietan: pedagogikoa, administratiboa eta ekonomikoa.
- Segurtasuna eta eraginkortasuna baieztatzen duten lan, protokolo eta informazio bideak indartu.
- Norberaren ekintzak baloratu, objetibotasuna bermatzen duten irizpideak jarraituz, eta hobetzeko proposamenak finkatu.

## **3.2 Instituzionalak**

- Ikasleekin edo eta ikastetxearekin esku-hartze zuzena zein zeharkakoa duten instituzio guztiekin erlazioa sakondu: Udaletxea, IMD, Modulo Psikosoziala , Giza Zerbitzuak, Osakidetzako zerbitzuak ...
- Beste instituzio batzuekin harremanak mantendu, eta foro zein erakunde horietan parte hartu eskolaren irudia hobetzeko.
- Gure hezkuntza rola, lana eta profesionaltasuna defendatu gurekin lan egiten duten instituzioen aurrean.

## **4. Eskola eskaintza eta ildo pedagogikoa**

### **4.1 Eskola eskaintza**

Ikastetxe publiko bat garenez, gure hezkuntza eskaintza indarrean dagoen araudian oinarrituta dago. Ahaleginak egingo ditugu administrazioak ditugun behar guztiei erantzuna emateko behar beste errekurtsio jar dezan, eta ikastetxean eskola komunitate osoarentzako ahalik eta etekin handien ateratzeko kudeatuko ditugu.

San Inazio LHI Haur eta Lehen hezkuntzako ikastetxea da, D eredukoa. 2 urtetatik 12 urtetara bitarteko ikasleak ditugu. Ikastetxeak bi lerro ditu. Jakin badakigu bi lerro horiek mantentzeko ditugun zailtasunak ez direla gutxi (jaiotze-tasa baxua, inguruko ikastetxeekiko lehiakortasuna), baina ahalegin eta lan garrantzitsua egiten da horrela mantentzeko.

Eskaintzen ditugun zerbitzuak ondoko hauek dira:

- Eskolako jantokia: ikasle gehienek erabiltzen dute. Bertan egiten da janaria. Kalitate handiko zerbitzua izanda gure identitate seinale garrantzitsua da.
- Eskolaz kanpoko ekintzak: ikasleen gaitasunen garapenerako osagarri garrantzitsua eta familiek ordutegiak kontziliatzeko errekurtsio bat. AMPA eta eskolako ACEX programaren bidez kudeatzen dira.
- Eskola-kirola saskibaloia da. Aspaldi praktikatzen da eta eskolan ohitura bat da.
- Ekintza osagarriak: ikasgelako lanaz gain, ziklo guztietan eta etapa bietan ekintza desberdinak antolatzen dira (txangoak, bisita kulturalak ...).
- Ikastetxeak Udalaren eskola Osasun eta prebentzio sailak kudeatzen duen eskola medikua du, eta eskolako osasun plana garatzen du.
- Logopeda eta hezkuntza premia bereziko taldea dago, aniztasunaren trataera, behar berezien identifikazio eta arreta goiztiarrerako eta orientaziorako lan egiten duena. Talde horrek kanpoko taldeekiko harreman eta koordinaketa kudeatzen du (giza zerbitzuekin, Berritzegunearekin, osakidetzarekin ...)
- Ikastetxea eskolatik (irakasleak, AMPA,...) zein auzotik datozen eskaera berrietara zabalik dago.

## 4.2 Ildo pedagogikoa

Lanean ibili gara azken urteotan gure ildo pedagogiko eta metodologiaren arteko batasuna lortzeko. Irakasle bakoitzak dauzkan aberastasun eta aniztasunarekin erlacionatutako esperientzi ekarpenak metodologiarekin bat izateko lanean gabiltza. Gure oinarria ikaslea da eta bera da bere irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren protagonista, irakaslea bitartekaria delarik. Bere esperientzia jarriko du bitartekaritza lan honetan eta alde metodologiko hauek kontutan izango ditu:

- Hezkuntza esanguratsua, ikaslearen aurre ezagutzak, errealitatea, interesak eta beharrak oinarria izanik.
- Berdintasuna, aniztasunari erantzuteko errekursoak kudeatuz, desberdintasunak orekatzeko, hezkuntza premia berezien antzeman goiztiarra ahalbideratuz eta ikasleriaren behar desberdinei erantzuten, gaitasun, arraza, kultura, gizarte eta genero desberdintasunak kontutan izan gabe, eta
- Hezitzailea ikaslearen kuriositatearen bitartekari eta suspertzaile moduan. Irakasleak, ikasleak bere ingurua ezagutu eta uler ditzan, ikerketak, berezko motibazioa eta ikaslearen ekimena bultzatuko ditu.
- Praktikan problemak ebazteko bideratutako hezkuntza.
- Lan kooperatiboa, talde lana.
- Tutoretza lana, taldean sortarazten diren arazoak eta ikaslearen arazo akademiko eta sozialak konpontzeko asmoz.
- Ohitura eta lan teknika desberdinak lortzeko.
- Metodologia zabala eta malgua, inguruko eskaerak erantzuteko asmoz.
- Hizkuntzak irakasterakoan, koherentzia metodologikoa. Horrez gain hizkuntz trataera euskararen normalizaziorantz bideratuko da, eskolako talde guztiak parte hartzera animatuz
- Gai desberdinen inter-erlazioa bultzatu.
- Ikasketak eskuratzeko giro atsegina. Garrantzia emango zaie emozioen kudeaketari eta gatazken ebazpenari.
- Hezkuntza praktika eta ikaslearen garapen osoa bultzatzeko, ebaluaketaren sistematizazio eta indartzea sustatuko da.
- Hezkuntza maila hobetzeko etengabeko lana, irakasleen formazioa bultzatuz eta berrikuntza planak ezarriz.


## 5. Funtzionamendu eta antolaketa eredua

Proposatutako helburuak lortzeko eta ikaslearen garapen osoa lortzeko, antolamendu eta funtzionamendu eredua, gaur egungo Arandian oinarrituta, hartuko da abiapuntu bezala. Eredua hori, Eskolak dituen berezitasunekin, ildo pedagogikoarekin eta eskola ereduarekin bat dator.

Euskal Eskola Publikoaren Legeak eta Antolakuntza eta jarduera-araudiak (AJA) hezkuntza eredu honi lege oinarria emango diote. Esparru horren barruan gure antolaketa eredua dinamikoa eta malgua izango da, eskola komunitateko partaideen parte hartze aktibo eta demokratikoa errazten.



Eskolako funtzionamendu organigrama hauxe da:



Organigrama honek duen helburua bete dezan ondoko printzipioak oinarri izango ditu:

- Ikas-komunitate osoaren parte-hartze aktiboa sustatuko du.
- Taldeko lana, kooperazioa eta erabaki hartze demokratikoa bultzatuko du.
- Guztion iradokizun eta ekarpenetara irekita egongo da.
- Dinamikoa eta malgua izango da, errealiter eta momentura egokitzeko gai izanez.

## **6. IHPko egokitzapen eta ebaluazioa**

Eskola Kontseiluak onartuko du Hezkuntza Proiektu hau. Onarpen hau ikas komunitatearen elkar lanaren emaitza izan da, beraz partaide guztien konpromezua du.

Proiektu hau eraginkorra izateko, bizirik egon behar da, hau da, sortzen diren eskari eta beharretara irekia egongo da, etengabe ebaluatu behar da eguneratzeko eta etekin handien emateko.

Urteko Memoria egiten den momentuan, Eskola Kontseiluak baloratuko du IHPa eta honen garapena.

Ikas komunitatean ematen diren egoera eta eskaera desberdinak denon artean aztertuko dira, guztion iritziak entzun eta aztertuko dira, oreka eta adostasuna bilatzeko helburuarekin. Hausnarketa egin ostean, Eskola Kontseilua izango da aldaketak egingo duen organoa.

Hezkuntza Proiektu hau behin onartuta, ikas komunitatearen artean argitaratu eta zabalduko da ezagutu dezan. Hala izango da aldaketarik egiten den bakoitzean.

***2013ko apirilaren 17an OOGak Hezkuntza Proiektu hau onartzen du***